ASTEKARIA | 2018ko otsailaren 16an | XXI. urtea | USURBIL | 729. zenbakia | www.noaua.eus TOKIKOM

# noaua

Ekainaren 28an hasi eta uztailaren 2an amaituko dira Usurbilgo festak

Inauteriak, argazkitan

Turismoari bultzada bat eman nahi dio Udalak



# "Txertatu Merkatuan"

## Langabezian dauden gazteak lan mundura hurbiltzeko programa


Gure berezitasunak
Otar-Goxo
Elikagaiak
PROBA ITZAZU GURE ARKUME ERREA, TXERRIKUMEA, KAPOIA, TXAHAL ETA ZAHAR AZPIZUNAK, TXULETA...
HARATEGIA - URDAITEGIA- FRUTADENDA
Zubiaurrenea, 2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil
Hirukide elkarteko kide diren familientzat...
Hirukide
hurbilago


BAZKIDEEN TXOKOA
noaua
Otsailaren 23an ZOZKETATUKO dugu:
AIALDE-BERRI SAGARDOTEGIAN
2 LAGUNENTZAKO afari edo bazkaria
NOAUAREKIN TXOTX!
noaua! euskararen aterpe
Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

## Albistea iruditan

# Euskaraldia antolatzeko taldea osatu da

Euskaraldia eta euskararen erabileran izan den beherakadak eragindako kezka hizpide nagusi hartuta batzartu ziren Potxoenean otsailaren 7an, euskalgintzako eragileak, norbanakoak eta Usurbilgo Udala. 25 bat lagun guztira.

Euskal Herri mailako Euskaraldia ekimenaren testuinguruan, eta euskararen erabileran izan den beherakada dela eta zer egin aztertzeko bildu ziren kultur etxean. Taldea osatu eta Euskaraldia Usurbilen antolatzea erabaki zuten.

Euskaraldia Usurbilen antolatzeko hurrengo bilkurarako hitzordua jarri ere bai. Martxoaren 14an 18:00etan Potxoenean finkatu duten saioan, Euskaraldia diseinatzeko lehen urratsak eman asmo dituzte. Batzar irekia izango da, nahi duen eragile eta norbanako oro bertaratu daiteke.




**Martxoaren 14an 18:00etan Potxoenean finkatu duten saioan, Euskaraldia diseinatzeko lehen urratsak emango dituzte.**

## Laburrean

### Otsailaren 24an, 1956an jaiotakoen afaria

Otsailaren 24an biltzeko hitzordua finkatu dute 1956an jaiotako usurbildarrek, Saizar jatetxean egingo duten afarian. Izen ematea aurrez bideratu, otsailaren 22a baino lehen, 943 362 555 (Mari Karmen) telefono zenbakira deituta.

### 1975ean jaiotakoen bazkaria

Martxoaren 10ean batuko dira, sagardotegian. Izena emateko epea otsailaren 23an amaituko da. Izena emateko deitu edo bestela mezua bidali whatsapp bidez edo mezulari zerbitzutik, zenbaki honetara: 608 045 479 (Igor).

### Martxoaren 10ean, 1973ko kinto bazkaria

1973an jaiotakoen bazkaria sagardotegian egingo da, martxoaren 10ean. Izena emateko whatsappa edo mezua bidali: 615 756 893 (Mamen/Gema). “Animatu zaitezte, egun bikaina pasako dugu!”.

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Ekhi Arrieta.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Usurbilgo Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal presoak
Euskal Herrira!

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.**



Imanol Ubeda

# Datuak eta datu ondokoak

Euskadiko Lan Txostena aurkeztu zuten duela hiru aste. Azterlan honen bitartez, Euskadiko Autonomi Erkidegoko lan egoera ikertzen dute. 2017ko datuak aztertu dituzte eta txostenaren arabera, "langabezia jaitsi egin zen eta lanpostu berriak sortu ziren". Albiste bat borobiltzeko izenburu ederra.

2016. urtean baino 14.000 pertsona gehiago kontratatu zituzten iaz Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako enpresek, eta horietatik %80 emakumezkoak izan ziren. Albistea osatzeko, sarreratxo polita.

Sara de la Rica EHUko Ekonomia eta Enpresa fakultateko irakaslea da eta Euskadiko Lan Txostena koordinatzen du. Bere esanetan, "lanpostu sorreran emakumeek etekin gehiago atera dute, baina baita gazteek ere". Lanean ari ziren gazteen kopuruak gora egin baitzuen iaz.

Baina albiste orok dauka bere aurkia eta bere ifrentzua. Kazetari baikorrenak ere ezingo luke datu hau saihestu: lanpostuak kantitatean igo badira ere, lanean hasi direnen baldintzak ez dira hobetu. Alderantziz. Behin-behinekotasunak gora egin zuen joan den urtean. Iaz lanean ari ziren langileen %26ak ez zuen kontratu egonkorrik. Azken urteetan okerrera egin duen gaitza da gurean. Europan, tasa hori %10ekoa da.

2017an sortu ziren lanpostu berrien profila honela irudikatu zuen Sara de la Rica irakasleak eta ikerlariak: "behin-behinekoa eta emakume gazteek eskuratu dutena". Beraz, bada zer hobetua.

Aldizkari honetan bertan, bi programa hartu ditugu hizpide. Lanik gabe dauden gazteei zuzenduak daude biak.

Lan bila dabiltzan herritarren artean ordea, bada bestelako profila duenik: iraupen luzeko langabea. EAEn, datuak behera egin zuen 2017an. Hala ere, hamar langabetik seik egoera horretan jarraitzen dute. "Euskadin arazo handi bat da oraindik ere", hala zioen Sara de la Ricak. Hauek lan merkatura itzultzeko ahalegina bikoiztu beharko da. Gaur kronikoa dena, bihar konponezin izan ez dadin. Erremediorik gabe.

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | **Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

**Ika-mika**

# Aralar alderdiaren zikloa amaitu da

2017ko abenduaren 2an ospatu genuen gure azken Batzar Orokorra Iruñeko Baluarten. Bertan, aurretik hausnartuta genuen erabakia onartu genuen ia-ia aho batez: hamalau urteko ibilbidea egin duen alderdiari amaiera ematea, hain zuzen ere. Eta batzarra aprobetxatu genuen erabakia publiko egiteko.

Aitortu behar dugu ez direla urte gozoak izan, baina pozik gaude egindako lanaz. Izan ere, alderdi propioa sortzera bultzatu gintuzten helburuak –Ezker Abertzale zibil eta zabala lemak ongi laburbiltzen dituenak– erabat lortu ez badira ere, gauzatze aldera oinarri sendoak ezarri baitira Ezker Abertzalearen baitan, eta gure ahaleginak bere ekarpena egin duelakoan gaude.

Alabaina, ez dago dena egina eta, alderdi bezala desegiterakoan, gure azken ekarpena egin nahi izan diogu Ezker Abertzaleari. Guk ez dugu Ezker Abertzale zibil eta zabala alderdi desberdinez eta norbanakoen koaliziotzat ulertzen. Esan gabe doa egungo egoera alderdiek eraginda izan dela eta hori aitortzea eta egindako lana eskertzea tokatzen zaigula, baina etorkizunean norbanakoen esku dagoen alderdia izatea gustatuko litzaiguke, hau da, militante bat boto bat.

Bestalde, gauzak aldatu egin direla begi-bistan dago, uka ezina da. Baina, tamalez, esan behar dugu, ibilbide horretan ezker abertzalearen sentsibilitate desberdinetan aritu garenon arteko harremanak ez direla lehengoak izango. Alabaina, helburuak eta helburu horiek lortzeko oinarriak hor daude, eta belaunaldi berriek ere egin beharko dute euren ekarpena. Itxaropen hori dugu.

Usurbilgo Aralarrera etorriz esan, aurrez sortu baginen ere, bi legegintzaldietan izan ditugula bi zinegotzi Udaletxean eta gogoz jardun garela lanean. Herria hobetze aldera egin ditugun ekarpenetan ikuspegi soziala eragitea izan da gure helburu nagusia.

Eta amaitzeko, eskertu bereziki herriko gure zerrendetan azaldu zaretenoi eta programak eta gai jakinak lantzeko egin ditugun Batzarretan parte hartu duzuenoi, ez baita batere samurra izan urte horietan guztietan gure alderdiaren inguruan ibiltzea. Eta, nola ez, Udal hauteskundeetara aurkeztu garenean zuen babesa eman diguzuenoi, zuen botorik gabe ezinezkoa izango baitzen hau guztia. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko guztioi! Amaitu da Aralar alderdiaren zikloa, baina ez sortzera bultzatu gintuzten helburuena.

Ez adiorik, herrigintza ez delako alderdi politikoen egitekora mugatzen, guztion egitekoa baita. Hor daude mugimendu sozialak, herriko kirol zein kultur taldeak, eta baita norbanakoaren lana. Ziur elkar topatuko dugula ahalegin horietan.

**Usurbilgo Aralar**

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: otsailak 23. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 19.

# Usurbilgo jaiak, ekainaren 28tik uztailaren 2ra

Bost jai egun aurtengoan; ekainaren 28tik uztailaren 2ra ospatuko dira Usurbilgo jaiak. Hala erabaki zuen otsailaren 6an Jai Batzordeak Potxoenean egin zuen lehen bileran. Ekaineko azken ostegunean hasi eta uztaileko lehen astelehenean amaituko dira honenbestez festak; Santixabel Egunez.

25 bat lagun bildu zituen hitzorduan, iaz bezala hutsetik abiatu nahi izan zituzten antolaketa lanak. Horma irudi baten baitan, jai egunak finkatzearekin batera, bilerara bertaraturikoek egun bakoitzean zer nolako ekitaldiak antolatuko lituzketen proposatzeko aukera izan zuten. Alegia, egun bakoitzean zer antolatu nahi luketen. Behin behinekoa da, egunez egun ageri den ekitaldien kokapena. Datozen hilabeteotan aldaketa bat baino gehiago egon daitezke. Guztiak hurrengo bileratan zehazten joango dira.



**Herritik herriarentzat sortutako jaiak izatea sustatu nahi da.**

**Herri lanketa**

Martxoa amaitu aurretik, beste bi batzar deitzea aurreikusia du Jai Batzordeak. Momentuz, hurrengo hitzordua finkatu dute. Jai Batzordea, bigarrenez, otsailaren 26an arratsaldeko 18:00etan bilduko da Potxoenean. Ohi bezala, bertaratu nahi duen eragile eta norbanako ororentzat bilera irekia izango da. Ekintza berririk bada bertan aztertuko dute, eta jaietako aurrekontuen lanketari ere ekingo diote.

> *HURRENGO BILERA*
>
> ***Jai Batzordea otsailaren 26an batuko da berriro, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Ohi bezala, bertaratu nahi duen eragile eta norbanako ororentzat bilera irekia izango da. Ekintza berririk bada bertan aztertuko dute eta jaietako aurrekontuen lanketari ere ekingo diote***

Jada egunez egun zer ekitaldi antolatu nahi diren kokatzen hasi ziren aurreko asteko saioan. Hurrengo bileretan, ekitaldi bakoitzaren gastuaren zenbatekoa ere adieraziko da. Zer antolatu eta antolatu nahi den horrek zenbateko kostua duen agerian utzi nahi da modu horretan. Aurtengoan 70.000 euro bideratuko dira festetara.

Antolatu nahi diren jai ereduaz ere hausnartuko dute hurrengo hilabeteotan. Ezagunak ditugun zehar lerroak kontuan hartuko dituen jaiak bultzatu nahi dira; alegia, jai parte hartzaile, inklusibo, parekide edota jasangarriak izatea.

Azken bilerak erakutsi bezala, iaz bezala, aurtengo jaiak ere hutsetik antolatu nahi dituzte, orri zuri batetik alegia. Komunitate ikuspegi batetik, Jai Batzordean bildutako eragile eta norbanakoen asmoei forma eman nahi zaie bilgune honetan. Herritik herriarentzat sortutako jaiak izatea sustatu nahi da. Gogoan izan, festen antolaketei lotutako guztiaren erabakitze gunea da Jai Batzordea.

**Txosna Batzordearen bilera**

Ostiral honetan batuko da, lehen aldiz. Xehetasun gehiago 22. orrialdean.



## Ttipika taldekoen grabazioa

Taldeak bideotxo bat grabatu nahi du igande honetan, otsailak 18, 13:00ean Mikel Laboa plazan, Zumetaren muralaren aurrean. Grabaziorako herritar bila dabiltza. "Dantzaldi bat simulatu nahi dugu eta horretarako jendea behar dugu. Ez da luzea izango, 30 bat minutu", zehaztu dute Ttipikakoek. Bertaratzen direnei esker ona adierazteko, oparitxo bat zozketuko da parte hartzaileen artean. "Etortzen zareten guztion artean, Haziak diskoa eta kamiseta bat zozketatuko ditugu! Animatu eta lagun zaiguzu mesedez!". Ttipika Dantza Gidatuen taldea, Aitor Agirrek (dantza emanaldiko gidaria), Maitane Arteagak (abeslaria eta pandero jolea), Manex Torrealdaik (trikitixa eta kaxa flamenkoa) eta Josu Furundarenak (kitarra) osatzen dute.

## Rudyren erakusketa

Margolari nafarraren margoak ikusgai dituzue Artzabalen. Egileak, "Euskal Herrian zehar ibilbidea" izena jarri dio erakusketari. Euskal Herriko natur guneak omentzea du helburu.

## Komikia




**TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.**

nocua 2018ko otsailaren 16an

# 'Txertatu Merkatuan' programari esker, gazte langabeek ofizio bat ikasteko aukera dute

Beterri-Buruntza eskualdeko udalek 'Txertatu Merkatuan' prestakuntza programaren edizio berri bat iragarri dute. Eskaintza hau 16 eta 29 urte arteko gazteei zuzendua dago eta lan mundurako sarbidea erraztea du xede. Aurten, hauxe izango da eskainiko den formazioa: Kutxazain eta apal-betetzailearen prestakuntza.

'Txertatu Merkatuan' programaren hirugarren edizioan, langabezian dauden eta eskola lerrotik at dauden gazteek parte hartu ahal izango dute. Martxoan hasi eta ekainera arte iraungo du programak.

Honakoan, kutxazain eta apal-betetzailearen prestakuntza eskainiko da. Beterri-Buruntza eskualdeko emakumezkoek lehentasuna izango dute.



2017ko irailean, 'Txertatu Merkatuan' programaren bitartez margoketa industriala eta bizikletak konpontzeko ikastaroa jasotzeko aukera izan zuten. Honakoan, kutxazain eta apal-betetzaile izateko prestakuntza eskainiko zaie gazteei.

FORMAKUNTZA PROGRAMA

***Martxotik ekainera, kutxazain eta apal-betetzailearen prestakuntza eskainiko da***

**Europako diru laguntzarekin**

Formakuntza programa hau EAEko '2014-2020 Gazte Enplegurako Programa Operatiboan' kokatzen da eta Europako Gizarte Funtsak finantzatzen du %91'89an. Eusko Jaurlaritzarekin batera, eskualde-garapeneko 19 agentzia ari dira elkarlanean. Tartean da Beterri-Buruntza eskualdeko udalek osatzen duten garapen elkartea.

## 16 eta 29 urte arteko gazteentzat diseinatutako eskaintza

- Langabezian dauden eta ikasten ari ez diren 16-29 urte bitarteko gazteek, beti ere kualifikazio gutxikoek, parte hartu ahal izango dute Txertatu Merkatuan programan.
- Aurten, kutxazain eta apal-betetzaileen proiektua burutuko da.
- Martxoan hasiko da eta ekainera arte iraungo du.
- Guztira 14 pertsonentzako tokia egongo da, Beterri-Buruntzako udalerriko emakumeek lehentasuna dutelarik.
- Prestakuntzaren edukiak:

-Gizarte eta lan orientazio eta integraziorako teknikak.

-Kutxazain eta apal-betetzailearen prestakuntza.

-Praktikak burutzeko behar diren beste hainbat prestakuntza.



Prestakuntza jasotzeaz gain, ikasleek 100 orduko praktikak burutu beharko dituzte.

- Prestakuntzaz gain, 100 orduko praktikak burutu beharko dira.
- Izen-ematea: Otsailaren 23 arte eman ahalko da izena.

Tokia: Urigain Etxea. La Salle Etorbidea, 6. 20140 Andoain. Ordutegia: 9:00-15:00.

- Interesatuek edo informazio gehiago nahi dutenek emailez edo telefonoz jar daitezke kontaktuan hurrengo telefono edo posta elektronikoan: 943 30 42 21 txertatumerkatuan@andoain.eus

# ‘Hazilan’, 20 eta 44 urte arteko gazte kualifikatuak lan munduan murgiltzea xede duen eskaintza

Garapen Agentzien Euskal Elkarteak, proiektuko kide diren hogei garapen agentziekin batera, Hazilan 2016-2021 laneratze-proiektua jarri zuen martxan. Eusko Jaurlaritzarekin eta Europako Gizarte Funtsarekin (%50eko finan–tziazioarekin) ari dira elkarlanean.



Beterri-Buruntzako Udalek sustatzen dute Hazilan proiektua.

Hazilan egitasmoaren bitartez, langabezia-egoeran dauden gazteei aterabide profesional bat eskaini nahi zaie. Zehatzago esanda: 20 urtetik 44 urtera bitarteko gazte kualifikatuei unibertsitateko edota LHko goi-mailako zikloko titulazioa izanik ere lanik gabe aurkitzen direnei. “Kolektibo honek prestakuntza-maila handia badu ere, zailtasun handiak ditu lan-merkatuan sartzeko, bere lanbide-profilari lotutako esperientziarik ez duelako batetik, eta enpresek eskatutako zeharkako konpetentzia eta gaitasunen jabe ez delako bestetik”, Hazilaneko arduradunek aditzera eman dutenez. Gazteak lan munduan txertatzea da Hazilanen helburu nagusia. Nola eragiten dute ordea? Laguntza pertsonalizatuaren bitartez. “Hazilan proiektuari esker, garapen-agentziek etorkizuneko proiektuak dituzten enpresak zein diren jakingo dute, eta enplegu bat lortzeko behar dituzten baliabideak jarriko dituzte gazteen eskura, haien gaitasunak indartuz eta kudeatzen lagunduz”.

*PRAKTIKAK ENPRESETAN*

***“Gazteek hiru eta sei hilabete arteko praktikak egingo dituzte enpresetan”***

Hazilanek zubi lana egiten du, gazte kualifikatuak eta enpresak harremanetan jarriz. Praktikak egiteko, gazteek hiru hilabetetik sei hilabetera bitarteko egonaldiak egingo dituzte enpresetan. Adi, aurtengo programan izena emateko epea ixtear baita.

## ‘Hazilan’ enpresei eta gazteei zuzendua dago

Langabetuen artean gazte kualifikatuak, unibertsitate tituludunak edo goi mailako ikasketak dituztenei zuzendua dago Hazilane programa.

Hazilanek metodologia berritzailea proposatzen du, “ibilbide pertsonalizatu batean oinarritua, eta parte-hartzaileen ezaugarri pertsonaletara eta enpresek eskatutako proiektu profesionaletara egokitua”.

Hazilanetik aditzera eman dutenez, “lehen fase batean, pertsonen aktibazioa bilatzen da. Jarraian, proiektuaren arabera, ikasketa espezializatuak egiten dira, praktikak gauza–tzen dira, enpresa-proiektuetan parte hartuz”.

- Aktibatu: motibatzea, inplikatzea eta aktibatzea. Pertsonengan motibazioa, erantzukizuna, helburuak kudeatzeko gaitasuna, komunikazioa... sustatzea du xede. “Helburua pertsonak prestakuntza pertsonalizatu baten bitartez eta coach baten laguntzaren bitartez aktibatzea da; horretarako, alderdi psikologikoak eta emozionalak ez ezik, lanbide-garapena lortzeko behar diren konpetentziak ere landuko dira”.
- Kokatu: praktikak enpresan. Praktikak egiteko hiru hilabetetik sei hilabetera bitarteko egonaldiak gauzatu behar dira enpresetan. “Enpresak gidatzen du prozesu osoa eta Hazilan proiektuko teknikari batek egiten du jarraipena”.

**Izena ematea, ixtear**

Hasiera data: Otsailaren 26a.
Izen emateko epea otsailaren 21ean amaituko da.

**Informazio gehiago:**

Programan parte hartu nahi duten enpresek edota interesatuta dauden gazte guztiek web orrialde honetan lor dezakete nahi duten informazio guztia:

- www.hazilan.eus.
- 943 3042 21.
- hazilan@andoain.eus
- Helbidea: Urigain Etxea.

La Salle etorbidea, 6.
20140 Andoain.
Gipuzkoa.









# Ugartondoko eraikinak eraistear

Gutxi barru hasi litezke, Ugartondoko egungo eraikinak eraisteko lanak. Otsailaren 9an hesitu zuten ingurua. Tartean, hainbat gazte usurbildarrek 2012ko abuztuan okupatu zuten garai bateko Alkartasuna Kooperatibaren egoitza, ordutik Usurbilgo Gaztetxe bilakatua, baita inguruko eraikinak ere. Urtarrilaren 25ean Oiardo Kiroldegian zozketatu zituzten babes ofizialeko 46 etxebizitza eta 46 etxebizitza tasatu eraikitzekoak dituzte bertan.


Hesitze lanak burutu dituzte azken asteotan.

# ‘Maixu etxeko’ pisuetako baten esleipena

Gernika ibilbidea 13an, 1. eskuina helbidedun udal jabetzako alokairuko etxebizitza zozketa bidez esleitzeko oinarriak argitaratu ditu Usurbilgo Udalak. Otsailaren 10etik zenbatzen hasita, eskabideak aurkezteko 20 egun naturaleko epea izango dute interesdunek.

Pisuak 80 metro$^2$ ditu, 3 logela. “Etxebizitza, beharrezko guztiaz hornitutako sukaldearekin emango zaio errentariari”, ohartarazi du Udalak. Deialdi honetan parte hartzeko ezin da etxebizitzarik izan eta Usurbilen erroldatua egon behar da.



Pisuak 80 metro$^2$ ditu. Urtebetez esleituko da, hiru urtera arte luzagarri.

**Urtebeterako kontratua, luzagarri**

Aipatu moduan, etxebizitza zozketa bidez esleituko da. Eskatzaileek zerrenda bakarra osatuko dute. Ugartondoko etxebizitzekin egin bezala, eskabideak aurkezteko epea itxi ostean, behin behineko onartu eta baztertutikoen zerrenda argitaratuko du Udalak. Gero 10 eguneko alegazioetarako epea irekiko dute. Segidan, behin betiko zerrenda argitaratuko du Udalak. “Zozketan, behin behingo esleipendun bat izendatu eta itxarote-zerrenda bat osatuko da”.

Pisua esleitzen zaionari urtebeterako kontratua egingo zaio, baina gutxienik urtez urte hiru urtera arte luzatuko zaiona. Ordaindu beharreko errenta, bizikidetza-unitate errentariaren urteko diru-sarreren araberakoa izango da.

**Informazio gehiago:**
Otsailaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
usurbil.eus

## Kirol instalakuntzen garbiketarako kontratu esleipena

Udalerriko kirol instalazioak garbitzeko kontratua esleitzera doa Udala bi urterako, lau urtera arte luzagarria izango dena. Kontratu erreserbatua izango da, enplegu zentro bereziei zuzendua. Lizitazio prezioa, 470.000 euro BEZ gabe. Interesdunek martxoaren 12ra arte aurkeztu ahalko dituzte eskabideak. Argibide gehiago: otsailaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, usurbil.eus/eu/kontratatzailearen-profila atarian, udaletxean bertan edo 943 371 951 telefono zenbakian.

## Martxoaren 3tik aurrera, bus-taxi zerbitzua hilerri berrira

Usurbilgo Udalak kaleratu berri duen “Udalberri” aldizkariaren 3. zenbakian iragarri duenez, bus-taxi zerbitzua jarriko du martxan martxoaren 3tik aurrera, hilabetero lehen larunbatetan, hilerri berrirako joan etorria egiteko; eguerdiko 12:00etan igo eta 12:30etan jaisteko. “Erabiltzaile asko egongo balira, aukera handitzeko prest dago Udala, eta bi bidaia jarriko lituzke”. Bigarren joan etorri hori 12:30-13:00 artean egiteko aukera eskainiko luke Udalak.








# Ikastetxe guztietan ospatu zen Inauteri Jaia







Zubietako Eskola Txikiko ikasleek eta irakasleek frontoian egin zituzten Inauterietako dantzak. Guraso eta senide ugari batu ziren.





Aginagako Herri Eskolako ikasleek Eliza Zaharrean eskaini zituzten Inauterietako ikuskizunak.

# Urteurrenean, festa are borobilagoa
















Aurten, txanda ezberdinetan egin dira Inauterietako dantzak.



Inauteri festak jarraipena izan zuen astelehenean, Bihurri haur ludotekan.











**Udarregi ikastolako LH eta DBHko ikasleak, kalejiran.**



**Aspaldiko partez, Udarregiko irakasle batzuk ere dantzan aritu ziren.**




ORIO




































**Inauterietako argazki gehiago, noaua.eus web orriko Argazkitegian.**

# Herri izaera babestuko duen turismo eredu propioa eraikitzeko hausnarketa prozesua

Usurbilek badu zer erakutsi munduari, eta bisitariek mundu mapan kokatzeko hamaika altxor aurki ditzakete Usurbilen. Horregatik ezinhobeto uler daiteke otsailaren 8an, Udalak agerraldi bidez iragarri zuena: “Turismoari bultzada bat eman nahi diogu Usurbilen”. Bultzada bai, baina ez edozein modu edo neurritakoa.

“Ez du edozerk balio turismoari begira”, azpimarratu zuen Xabier Arregi, Usurbilgo alkateak. Helburua ez litzateke ahalik eta bisitari gehien erakartzea, hiriburuetan bisitari masifikazioek eragindako arazoak saihestu nahi dira. “Jendea erakarri bai, zer erakutsia badugulako, baina hori guztia herriak berez duen nortasunari tinko eutsita” sustatu nahi dute. Herri izaera babestuta alegia.

Azken hilabeteotan gai honi lotutako aurrelanketa bat bideratu du Udalak, eta orain, eragile zein herritarrekin partekatu nahi du. Turismo eredua definitu nahi dute, martxan jartzera doazen hausnarketa prozesuaren bidez.

**Esperientzia pausatuen aldeko apustua**

Gogoeta aldi honetan aurkeztuko duten proposamenaren gaineko zenbait zertzelada aurreratu ditu Udalak.




**Ekintza plana diseinatzeko, Udalak Lurmetrika enpresaren zerbitzuak kontratatu ditu. Elkarrekin aurkeztu zuten egitasmoa Potxoenean.**

*LURMETRIKA*

***“Oria ibaia guretzat altxorra da ikuspegi askotatik. Aukera paregabeak eskaintzen ditu”***

Turismo eredu lasaia, herria ezagutzeko esperientzia pausatuak bultzatu nahi dituzte, herritar eta bisitarien arteko interakzioa sustatuko duen eredua. Tokiko ekonomia, arlo soziala eta espazioa, herria bera, hiru elementuon arteko oreka bilatuko duen egitasmoa bideratu nahi dute.

Udalak argi du; Usurbilek hamaika nortasun ezaugarri ditu munduari erakusteko; azken hamarkadetan euskararekin eta euskal kulturarekin izan duen lotura nabarmena, balore paisajistikoak, sagar, sagasti eta sagardoaren kultura, angulena... Gertu ditugun hiriburu eta kostaldetik ezberdinduko duen eskaintza du udalerri honek, “gure txikitik eskaintza aberatsa” duela dio Udalak eta balore hauei guztiei lotutako esperientzia turistikoak eskaini nahi dituzte.

Beti ere, orain arte egindakotik abiatuta. Gogoan izan, Udalak “Harria hitz” Usurbilen barrena arte garaikideari lotuta ditugun altxorrak ezagutzeko hainbat bisita gidatu antolatu ohi ditu. “Ibilbide horrek irudikatzen du, tradizioaren edo gizarte molde baten eta modernitatearen edo arte garaikidearen arteko trantsizioa”, zioen aurreko asteko agerraldian alkateak.

Oria ibaiaren inguruko lanketa ere egina dute. “Oria ibaia guretzat altxorra da ikuspegi askotik; ondare, etnografia, arkeologia, paisajiaren ikuspuntutik. Esperientzia aberatsak izateko aukera paregabeak eskaintzen ditu”, zioten.

## Ekintza plana diseinatzen hasiko dira

Proiektu hau gauzatzeko hausnarketa fasea abiatzera doala iragarri du Usurbilgo Udalak. Prozesu hau ez dute bakarrik jorratu nahi noski, herritar eta eragileekin baizik. Haiekin, herriarekin partekatu eta herriak onarturiko proposamena osatzeko zenbait ekimen abiatuko ditu. Xehetasunak albiste honetan aurrerago dituzue.

Eragile eta herritarrak ezinbesteko bidelagunak dituztela nabarmendu du, garapen sozioekonomikoaz arduratzen den zinegotzi Alaitz Aizpuruak. “Usurbildarrok eroso sentitu behar dugu eratzen ari garen estrategia honetan eta horretarako elkarrizketa behar beharrezkoa da. Kontaketa propiotik abiatu eta denon artean osatu nahi dugu egitasmoa”.

Abiatzera doazen hausnarketa prozesu horretatik ekintza plan bat diseinatu eta plan hori gida gisa hartuta, turismoaren alorreko lanketa garatuko du herri honek, hurrengo urteotan.

# Merkatuan ezberdintzeko osagaiak baditu

Hausnarketa prozesu honetan bidelagun izango ditu Udalak, herritar eta eragileekin batera, kultur zerbitzuak eskaintzen dituen Ereiten enpresa, baita Lurmetrika, prozesu honekin garatu nahi den ekintza planaren ardura bere gain hartuko duen lantegia.


Usurbilen bereizgarri asko kultura garaikideari lotuta daude.

Lurmetrikako ordezkari Aurkene Azuak aurreko asteko prentsaurrekoan zioenez, merkatuan funtzionatzeko egun ezinbestekoa den ezberdintasun hori izateko osagairik ez zaio falta Usurbili. “Hemen badugu merkatuan agertzeko aukera emango digun, gure izaeraren berezitasun bat. Hemen dagoen kultura garaikidearen lerro hori, herrikoia da bere baitan”, zioen Azuak. Usurbil–ek duen balio paisajistikoa nabarmendu zuen baita.

Eskuartean dutena, proposamen bakar, berritzaile eta adimentsua dutela zioen. Herriari ekarpena egin nahi diona, “bertako eragileekin garatuko den egitasmoa”. Erronka potoloa dute eskuartean, Ereiten enpresako ordezkari David Zapirain–ek zioenez. Usurbila etorriko direnentzat, “XXI. mendeko usurbildarrak aintzat hartu eta jendaurrean partekatzeko balekoa izango den istorio atsegin bat sortu behar dugu”, zioen. “Etorri, ezagutu, zerbait jaso eta zerbait hori eramango dute. Zerbait hori da guk landu behar duguna”, gaineratu zuen.

Usurbilek zer kontatua baduela dio. “Eskertzekoa da, Usurbilek bere burua ezagutarazteko aukeratu dituen elementuak kultura garaikideari lotutakoak izatea, aurrerapauso handia da hori”, nabarmendu zuen.

**Hausnarketa prozesua**

■ Herritar orok ekarpenak egiteko inkesta labur bat zintzilikatuko du Usurbilgo Udalak usurbil.eus atarian.

■ Zenbait bilera ere deitu ditu Udalak:

-Otsailak 28 asteazkena, 10:00 Turismoari lotutako zerbitzuak eskaini edo eremu honetan diharduten eragile pribatuekin bilera Potxoenean.

-Martxoak 1 osteguna, 18:00 Kultur eragile eta herritarrekin bilera Potxoenean.

bertako
igogailuak | ascensores

24 orduko asistentzia abisu guztientzat
Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak
Orotariko zerbitzua 100€-tik aurrera
Euskarazko zerbitzua


Larrialdi telefonoa DOAN IGOGAILU GUZTIETAN

Itzaltze automatikoa kabinan LED teknologiarekin

Eskatu aurrekontua
www.bertako.eus • info@bertako.eus
Bizkaia 946 52 39 35
Gipuzkoa 943 90 34 50
Araba 945 71 28 22



# Santa Ageda bezperan, koplatan kantari



Usurbilen, Kantu Taldeak zuzendu zuen Santa Agedako kalejira.



Zubietan taldetxo bat osatu zen eta etxez etxe aritu ziren koplatan.

Aspaldiko talde jendetsuena osatu zen Usurbilgo Santa Ageda bezperako eskean. Iazko etenaldiaren ondoren, gogotsu berreskuratu dute usadio zaharra aurtengoan. Kantu Taldeak deituta, Mikel Laboa plazatik abiatu ziren. Makilak eskutan, baserritar jantziekin eta txistularien laguntzaz herri erdigunea, erraustegia edota presoen eskubide urraketak hizpide zituzten kopla erreibindikatiboez girotu zuten herriko kaxkoa.

Zubietan ere taldetxo bat osatu zen eta etxez etxe aritu ziren koplatan, giro alai askoan.

Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrei sagardo hoberenak eskeintzen.

Iruin, beti zugandik gertu.

943.361.229 Petritza bidea 12, Zubieta

Tapak eta aurkibideak prest




Agur esan diogu 2017 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2017ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

# Erraustegia geratzeko manifestazioa deitu dute

Otsailaren 24an erraustegiaren aurkako manifestazio handia iragarri dute Donostian. Arratsaldeko 17:30ean abiatuko da Gipuzkoa plazatik, “erraustegia gelditu. Birziklapena sustatu!” aldarripean. Mobilizazioa otsailaren 9an aurkeztu zuten deitzaileek, Donostiako Udaletxean egindako agerraldian. Inauteri giro betean egonik, aldarria mozorroan bilakatu zuten. “Txin txin, txin txin... diruaren hotsa” abestuz parodiatxo txiki bat eginez abiatu zuten ekitaldia.

Hilabete amaierako manifestazioan, Zubietako erraustegia geratu eta Gipuzkoa osoan, lekuan lekuko berezitasunetara moldatutako hondakinen bilketa eraginkorra abiatzea eskatuko da hiriburuan, alegia birziklagarria den guztia gaika bildu eta birziklatzea. “Hori da exijitzen dioguna Gipuzkoako Foru Aldundiari, jarri ditzala indarrak emaitza horiek lor–tzen eta ez alferrikako azpiegitura kutsakor eta garestia eraikitzen. Lehendabizi lortu %80a eta ondoren ikusiko



Otsailaren 24an egingo da, Donostian.

*ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA*

***“Lehendabizi lortu %80ko birziklatze tasa eta ondoren ikusiko dugu zer egin geratzen denarekin, baina ez alderantziz”***

dugu zer egin geratzen denarekin, baina ez alderantziz”, zioten Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko kideek. Duela urtebete aurkeztu zuten erraustegiaren ordezko alternatibaren bideragarritasuna defendatu zuten.

Birziklatze tasak handiagotu daitezkeela gogorarazten dute. “Dagoeneko jakin badakigu %80ko birziklatze tasa lortzea posible dela, horretarako bitartekoak jarri eta borondatea izanez gero. Modu honetan zabor nahasi ugari sortzea ekidin genezake, geratuko litzatekeen apurrarekin errausketa ez den beste irtenbide bat bilatzea posible izango genuke eta ez Gipuzkoan egin nahi duten bezala erraustegi toxiko bat inposatu eta 35 urtetan ordaintzen egon behar izatea”, salatu zuten.

**Herritarrak, jomuga**

